ERABAKIA, Nafarroako Gobernuak 2024ko azaroaren 27an hartua, zeinaren bidez onesten baitira Nafarroako Foru Komunitateko Administrazioaren informazio publikoaren katalogoa egiteko jarraibideak.

Gardentasunari, Informazio Publikoa Eskuratzeari eta Gobernu Onari buruzko maiatzaren 17ko 5/2018 Foru Legeak ezartzen du publizitate aktiboko zer betebehar dituzten legearen aplikazio eremuan dauden subjektuek, eta nabarmen handitzen du Gardentasunari, Informazio Publikoa Eskuratzeari eta Gobernu Onari buruzko abenduaren 9ko 19/2013 Legeak publizitate aktiboari buruz ezarri zituen betebeharren kopurua.

Zehazki, foru lege horren 19. artikulutik 29.era bitartekoek eta bederatzigarren xedapen gehigarriak argitaratu beharreko informazioaren edukia zehazten dute, eta finkatzen dute informazioan honako hauek bildu behar direla: informazio instituzionala, antolaketakoa eta plangintzakoa; goi kargudunei eta zuzendaritzako langileei buruzko informazioa; garrantzi juridikoa duen informazioa; informazio ekonomikoa, aurrekontuei buruzkoa eta finantzarioa; kontratazio publikoari buruzko informazioa; zerbitzu emakidei buruzko informazioa; lankidetza-hitzarmenei, programa-kontratuei, esleipenei eta baliabide berekientzako mandatuei buruzko informazioa; dirulaguntzen arloko jarduerari buruzko informazioa; ondareari buruzko informazioa eta informazio estatistikoa; lurraldearen antolamenduaren, hirigintzaren, ingurumenaren eta etxebizitzaren arloko informazioa; herritarrentzat interesgarritzat jotzen den beste edozein informazio, eta, bereziki, sarrien eskatzen dena, hori guztia eragotzi gabe publizitatearen arloan araubide zabalagoa ezartzen duten xedapen bereziak aplikatzea.

Publizitate aktiboari buruzko legezko konfigurazioak berekin dakar arauetan jasotako informazioa zabaltzeko betebeharra, aldez aurretik informazio publikoa eskuratzeko eskaera zehatzik egin gabe ere. Gainera, horrek esan nahi du informazioa ofizioz argitaratu behar dela eta nahitaez argitaratu beharreko edukien zerrenda ez dela eskura jarri beharreko informazio guztia, betiere Gardentasunari, Informazio Publikoa Eskuratzeari eta Gobernu Onari buruzko maiatzaren 17ko 5/2018 Foru Legearen 31. eta 32. artikuluek finkaturiko mugen barnean.

Horiek horrela, Nafarroako Gobernuko departamentu guztiek helburu bera dute, hots, antolatu eta zehaztu beharra dute zein den argitara daitezen sustatu beharreko edukien zerrenda. Bestetik, horrek esan nahi du erabaki bat hartu behar dela gardentasunari dagokion eskumena duen departamentuak katalogo bat onets dezan, publizitate aktiboko edukiak modu berean egituratzeko Nafarroako Foru Komunitateko Administrazio osoan.

Informazio publikoaren edo publizitate aktiboaren katalogoaren premisa da, batetik, araudiaren arabera publizitate aktiboaren betebeharraren mende dagoen informazioa biltzea, eta, bestetik, une bakoitzean Gobernu Irekiaren Atarian agertzeko behar adinako garrantzia duten edukiak jasotzeko tresna ezinbestekoa izatea, atari hori baita informazio publikoa zabaltzeko bitartekoa.

Halaber, katalogoak ez du soilik balio publizitate aktiboko edukiak egituratzeko eta araua betetzen dela kontrolatzeko, horrez gain aukera ematen baitu eduki horien arduraduna zein den jakiteko eta argitaratutako informazioa etengabe eguneratzeko.

Hala, administrazioak publizitate aktiboko betebeharrak betetzeaz gain, lagundu egiten du herritarrek administrazioan eta arduradun publikoengan duten konfiantza indartzen eta haiei buruzko pertzepzioa hobetzen.

Horrenbestez, Nafarroako Gobernuak, Lehendakaritza eta Berdintasuneko kontseilariak proposatuta,

ERABAKI DU:

1.Nafarroako Foru Komunitateko Administrazioaren informazio publikoaren katalogoa egiteko jarraibideak onestea. Hona hemen:

Lehenengoa. Jendaurreko informazioaren katalogoa.

Nafarroako Foru Komunitateko Administrazioaren informazio publikoaren katalogoak biltzen ditu hark Gobernu Irekiaren Atarian argitaratu behar dituen publizitate aktiboko edukiak.

Bigarrena. Edukia.

Nafarroako Foru Komunitateko Administrazioaren informazio publikoaren katalogoan bilduko dira Gardentasunari, Informazio Publikoa Eskuratzeari eta Gobernu Onari buruzko maiatzaren 17ko 5/2018 Foru Legearen arabera publizitate betebeharra bete behar duten edukiak. Era berean, katalogoak hurrenez hurren biltzen ahalko ditu herritarrendako interesgarritzat jotzen diren edukiak, bereziki sarrien eskatzen diren horiek eta, araudi sektorialaren arabera, hedapen unibertsala behar dutenak. Adierazitakoez gain, beste eduki batzuk ere sartzen ahalko dira, hori onesteko eskumena duen organoak hala erabakitzen badu.

Katalogoak zehaztu beharko du zein den eduki bakoitzaren ardura duen zuzendaritza-organoa eta zein den eduki horiek eguneratzeko edo berrikusteko maiztasuna.

Katalogoan zehaztuko den eguneratze-maiztasun horrek adierazi beharko du zenbatean behin berrikusten den edukia, alde batera utzirik informazioa azken aldiz eguneratu zenetik aldatu den ala ez.

Hirugarrena. Organo arduradunak.

Katalogoko eduki bakoitzaren arduradun gisa agertzen den zuzendaritza-organoak bermatu beharko du argitaratu beharreko informazioa prestatzen, hornitzen eta eguneratzen dela eta kalitatezkoa dela.

Gardentasunaren arloan eskumena duen zuzendaritza nagusia arduratuko da informazioa Gobernu Irekiaren Atarian argitaratzeko euskarri materiala emateaz, eta edukien egiturari eta formatuari buruzko beharrezko jarraibideak emanen ditu, Gardentasunari, Informazio Publikoa Eskuratzeari eta Gobernu Onari buruzko maiatzaren 17ko 5/2018 Foru Legearen 11. artikuluak informazio publikorako ezarritako betebeharren arabera; izan ere, bertan ezartzen da informazioa modu argi, egituratu eta ulergarrian argitaratuko dela, eta informazio publikoa kudeatzeko neurriak hartuko direla, hura lokalizatzea eta zabaltzea erraza izan dadin, eta eskuragarritasuna, elkarreragingarritasuna, kalitatea, egiazkotasunaren kontrola eta argitaratutako informazioaren berrerabilera sustatzeko.

Laugarrena. Katalogoa onesteko organo eskuduna. Gardentasunaren arloan eskumena duen departamentuko kontseilariari dagokio katalogoa onestea eta eguneratzea.

Bosgarrena. Jarraipena.

Katalogoa eta haren eguneratzeak Gobernu Irekiaren Atarian argitaratuko dira, eta erraza izan beharko du zenbateraino betetzen den ikustea.

Seigarrena. Eraginkortasuna.

Erabaki honek onesten denetik aurrera izanen ditu ondorioak.

2.Erabaki hau departamentuetako idazkaritza tekniko nagusiei eta informazio publikoaren ardura duten unitateei igortzea, behar diren ondorioak izan ditzan.

Iruñean, bi mila eta hogeita lauko azaroaren hogeita zazpian.

NAFARROAKO GOBERNUKO
KONTSELARI-IDAZKARIA

Félix Taberna Monzón